



Agindua, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Injurumeneko sailburuarena, komunitateko konpost-instalazio eta -jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituen dekretuaren proiektua aldez aurretik onartzeko dena.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko maiatzaren 12ko Aginduaren bidez, komunitateko konpost-instalazio eta -jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituen dekretuaren proiektua egiteko prozedura hasteko agindua eman zen.

2022ko uztailaren 15eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 6/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Xedapen Orokorrak Egiteko Procedurarena, argitaratu zen. Lege horren Xedapen Iragankorrik hurrengoa arautzen du: *“Lege hau indarrean jarri aurretik hasitako prozedurak lehengo araudiaren arabera izapidezko dira amaitu arte.”*

Xedapen Orokorrak Egiteko Proceduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.1 artikuluaren arabera, xedapen orokorren egitasmoak idatzitakoan, procedura hasteko agindua eman duen organoak aldez aurreko onarprena eman beharko die, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsultazapideak egin aurretik.

Horregatik guztiagatik, eta dekretu-proiektuaren testua ikusi ondoren, hau

Orden de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente por la que se aprueba con carácter previo el proyecto de Decreto por el que se establece el régimen jurídico y las condiciones técnicas de las instalaciones y actividades de compostaje comunitario y doméstico.

Por Orden de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente de fecha 12 de mayo de 2022, se resolvió ordenar el inicio del procedimiento de elaboración del proyecto de Decreto por el que se establece el régimen jurídico y las condiciones técnicas de las instalaciones y actividades de compostaje comunitario y doméstico.

El pasado 15 de julio de 2022 se ha publicado en el Boletín Oficial del País Vasco la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general, cuya Disposición Transitoria establece que *“Los procedimientos iniciados con anterioridad a la entrada en vigor de la presente ley se tramitarán hasta su conclusión de acuerdo con la normativa anterior”*.

Como consecuencia, y en virtud del artículo 7.1 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, una vez redactados los proyectos de disposición de carácter general, deberán contar con la aprobación previa del órgano que haya dictado la Orden de iniciación, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan.

Por todo lo anteriormente expuesto, visto el texto del proyecto de decreto elaborado, así como el informe jurídico

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 XXX XXX – e-mail: xxxx@euska.eus



EBAZTEN DUT

Lehena.- Aldez aurretik onartea komunitateko konpost-instalazio eta jardueren araubide jurídicoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituen dekretu-proiektua

Bigarrena.- Aipatu proiektuaren procedura egiten jarraitzeko agintea, procedura hori hasiera eman zion Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko maiatzaren 12ko Aginduan eta xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legean ezarritako izapideekin bat.

RESUELVO

Primero.- Aprobar con carácter previo el proyecto de Decreto por el que se establece el régimen jurídico y las condiciones técnicas de las instalaciones y actividades de compostaje comunitario y doméstico.

Segundo.- Ordenar la continuación del procedimiento de elaboración del referido proyecto, de conformidad con los trámites establecidos en la Orden la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente de fecha 12 de mayo de 2022, por la que se dio inicio a su procedimiento de elaboración, y en la Ley 8/2003 de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de Disposiciones de Carácter General.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua
La Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente
MARIA ARANZAZU TAPIA OTAEGI

Sinadura elektronikoa

DEKRETU-PROIEKTUA, komunitate- eta etxe-konpostajerako instalazio eta jardueren araubide juridikoa eta kondizio teknikoak ezartzen dituena.

Euskal Autonomia Erkidegoan sortutako etxe-hondakinen oso portzentaje handi bat biohondakinak dira. Bihondakintzat jotzen dira etxeetan etxeko jardueren ondorioz sortutako hondakinak, baita zerbitzu zein industrietan antzeko jardueren ondorioz sortutako hondakinak ere.

Halaber, materia organikoaren ekarpenak lurzorua hobetzen du eta, horrenbestez, onuragarria da laborantzarako. Zehazki, lurzoruaren egitura hobetzen du, porositatea, ura atxikitzeko ahalmena, drainatzea eta lantzko erraztasuna handitzen baititu. Kimikari eta fisikari dagokienez, lagungarria da pH-aren balioak mantentzeko (tanpoi-edukiera) eta luraren kolorea iluntzen du (horrek berotzea errazten du), eta mikroorganismo eta landareentzako mantenugaien erreserba bat osatzen du. Gainera, materia organiko naturalaren ekarpenak karbono-bahiketarekin lotutako ingurumen-onurak eskaintzen ditu. Lurzoruak materia organikoa galtzeko fenomenoa lotuta dago CO₂ emisio handiagoekin, higadura-fenomenoekin eta, oro har, emankortasun-galerarekin; konpostak galera hori konpontzen du.

Produktu ongarriei buruzko Europako araudiaren helburuetako bat, hain zuzen, material birziklatuen erabilera sustatzea da, ekonomia zirkularren mesedetan. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/851 (EB) Zuzentaraauak, 2018ko maiatzaren 30ekoak, hondakinei buruzko 2008/98/EE Zuzentaraaua aldatzen duenak, hondakinak jatorrian birziklatzeko eragiketatzat jotzen du etxe- eta komunitate-konpostajea. Zuzentaraau horrek, halaber, jasotzen du estatu kideek bermatu egin behar dutela, betebehar gisa, biohondakinak jatorrian bereizi eta birziklatu edo beste hondakin batzuekin nahastu gabe bereizita biltzen direla, 2023ko abenduaren 31 baino lehen. Era berean, estatu kideei eskatzen zaie neurriak har ditzatela etxe-konpostajea eta biohondakinen birziklapena –konpostajea eta digestio anaerobioa barne– sustatzeko, ingurumena hein handian babesten dela eta emaitza kalitate handikoa dela bermatzeko moduan.

Helburu horiek betetzean etxe- eta komunitate-konpostajea kontuan hartzeko, Batzordearen 2019ko ekainaren 7ko 2019/1004 Betearazpen Erabakiak (EB) –hondakinei buruzko datuak kalkulatzeari, egiaztatzeari eta jakinarazteari buruzko arauak ezartzen dituenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/98/EE Zuzentaraauri –Batzordearen C (2012) 2384 Betearazpen Erabakia indargabetzen duenari– jarraikiz, bereizitako eta jatorrian birziklatutako udal-biohondakinak zenbatzeko metodologia bat biltzen du II. eranskinean.

Europar Batasunaren helburu estrategikoei eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Planari jarraikiz, ezinbestekoa –eta atzeraezina– da aurrera egitea biohondakinen gaikako bilketan, eta aukera paregabea ere izango litzateke halako aurrerakada bat, lotutako ingurumen-adierazleak hobetzeko ez ezik, lotutako balio-kateak indartzeko ere bai. Ildo horretan, dekretuak aukera emango du, besteak beste, lotutako esparru teknikoa hobetzeko, konpostaje-eremuen kudeaketa eta erregistroa optimizatzeko, sortutako konpostaren erabilera-esparrua hobetzeko, eta gizartearen parte-hartzea (nola kantitatean hala fidagarritasunean) faboratuko duten neurriak ezartzeko, kontuan izanik faktore hori funtsezkoa dela prozesuaren eta lortutako materialen egokitasuna bermatzeko.

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean (zeinaren helburuetako bat baliabideak efikaziaz kudeatzea baita, ekonomia jasangarria, zirkularra eta hipokarbonikoa sustatz) eta Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean (zeinak ezartzen baititu, 28. artikuluan, biohondakinen kudeaketa egokiari buruzko neurriak), xedatutakoaren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoan komunitate- eta etxe-konpostajearen bidez biohondakinei balioa emateko instalazio eta jarduera publico eta pribatuen araubide juridikoa eta kondizio teknikoak ezartzen ditu dekretuak.

Arauak honako hauek erregulatzen ditu: hondakinei balioa emateko jarduerak egiteko instalazioen betekizunak; instalazio horietan onar daitezkeen biohondakin motak; halako instalazioetatik datorren konpostaren gainean egin beharreko kontrolak; komunitate-konpostajerako instalazioen titularrek eta arduradun teknikoek bete beharreko obligazioak; udalek komunitate-konpostajerako instalazioei dagokienez bete beharreko obligazioak; komunitate-konpostajerako instalazioetatik datorren konpostaren erabilera; eta etxe-konpostajeko jarduerak gauzatzen dituztenen betebeharrak.

Horrenbestez, Eusko Jaurlartzaren Aholku Batzorde Juridikoak adierazitakoari jarraikiz, eta nahitaezko aholku-organoei iritzia eskatu ondoren, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2022ko XXXren XXko bilkuran eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Xeedea.

1.– Dekretu honen xeedea honako hau da: Euskal Autonomia Erkidegoan komunitate- eta etxe-konpostajearen bidez biohondakinei balioa emateko instalazio eta jarduera publico eta pribatuen araubide juridikoa eta kondizio teknikoak ezartzea, azken jomuga ingurumena eta pertsonen osasuna babestea izanik.

2.– Dekretu honen xeedea, halaber, komunitate-konpostajerako instalazio eta - jardueretatik datorren konpostaren erabilera posibleak arautzea ere bada.

2. artikulua.– Biohondakinei balioa emateko instalazioak eta jarduerak.

1.– Dekretu honen xedapenak betez etxe- edo komunitate-konpostajearen bidez biohondakinei balioa ematen dieten pertsona fisiko edo juridikoak salbuetsita egongo dira Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 33. artikuluan aurreikusitako baimena lortzeko betebeharretik, lege horren 34. artikulua aplikatuz.

2.– Halaber, baimen horretatik salbuetsita egongo dira etxe- edo komunitate-konpostajearen bidez biohondakinei balioa emanik dekretu honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzten instalazioak.

3.– Komunitate-konpostajearen bidez biohondakinei balioa emateko instalazioak eta jarduerak jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpenaren erregimen juridikoaren mendeko jarduera sailkatutzat hartuko dira, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 56. artikulari eta hurrengoei dagokienez, eta lege horren I.D) eranskinaren 16. apartatuan kokatuta egongo dira.

3. artikulua.– Definizioak.

Dekretu honen ondorioetarako, honako kontzeptu hauek definitzen dira:

- a) Biohondakin: lorategietako eta parkeetako hondakin biodegradagarriak; etxeetatik, jatetxeetatik, sukaldaritza kolektiboko zerbitzuetatik eta txikizkako establezimenduetatik ateratako elikagai- eta sukalde-hondakinak eta elikagaien prozesatu-instalazioetatik ateratako hondakin konparagarriak.
- b) Konpost: gaika bildutako hondakin biodegradagarrien tratamendu biologiko aerobioaren ondorioz lortutako medeagarri organikoa.
- c) Konpostaje: berezitako material biodegradagarri organikoen transformazio biologiko aerobiko eta termofiloaren prozesu kontrolatua. Horren bidez, ongarri edo emendarri organikoak eta/edo produktu organiko mota batzuk lortzen dira.
- d) Komunitate-konpostaje: hainbat erabiltzailek beren biohondakinak eremu komun batean konpostajearen bitartez tratatzen dituzten sistema, betiere Dekretu honetako mugak eta baldintzatzaleak kontuan hartuta. Komunitate-konpostajetza hartuko dira, halaber, ikastetxeetan egindako konpostajea, hiri-baratzeen erabiltzaileek landare-hondakinak lekuaren bertan gauzatutako konpostajea eta sortzaile handiek biohondakinak lekuaren bertan konpostatzea.
- e) Etxe-konpostajea: hondakin horien sortzaileek euren etxebizitzan, lorategian edo baratzean hondakin biodegradagarri bananduei ematen dieten tratamendu kontrolatua biologiko aerobio eta termofiloa, medeagarri organiko higienizatu eta egonkortua lortuz.
- f) Material egituratzaile/osagarri: zurezko materiala edo landare-jatorriko lignifikatua, zeinak, biohondakinarekin proportzio egokitan nahasten bada; izan ere, airea nahasketan barrena ibiltzea ahalbidetzen du, ez du trinkotzen uzten, karbonoa ematen du eta hezetasuna erregulatzen du.
- g) Komunitate-konpostajerako instalazio: konpostaje-prozesu osorako beharrezko ekipamendua edo ekipamenduen multzoa, deskonposizio- eta heltze-faseak barne. Instalazioaren parte gisa hartzen dira, halaber, material egituratzailea eta ondoriozko konposta biltegiratzeko ekipamenduak, leku berean kokatuak.
- h) Lote: komunitate- edo etxe-konpostajerako instalazio bateko konpost heldua. Konpost horren prozesuan 7. artikuluan ezarritako kondizioak bete dira. Aukera egongo da lote bat konpost helduaren hainbat azpiloz osatuta egoteko, baldin eta hiru kondizio hauek betetzen badira:
 - azpilote eta lote guztien trazabilitatea bermatzea.
 - azpilotearren jatorria instalazio bakar bat izatea, edo instalazio bat baino gehiago baina denak titular berekoak.
 - azpilote guztiak beren degradazio-faseak bananduta eta kontrolatuta amaitu izana, 7. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- i) Azpilote: lote bat eratzen duten partidetako bakoitza, baldin eta dekretu honen 7. artikuluaren arabera jada heldutako konpostzat jotzen badira.
- j) Komunitate-konpostajerako instalazioaren titular: 10. artikuluan jasotako eraikuntzaren, azpiegituraren mantentze-lanen eta haren kudeaketaren ondoriozko erantzukizunak bere gain hartzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa. Instalazioen titularrak tokiko erakundeak, jabekideen erkidegoak, ikastetxeak edo sortzaile handi gisa sailkatutako enpresak izan daitezke.

k) Komunitate-konpostajerako instalazioaren arduradun tekniko: instalazio bakoitzean 7. eta 8. artikuluak eta 13. artikuluko betebeharra betetzen direla bermatzeko ardura duen pertsona fisiko edo juridikoa.

l) Komunitate-konpostajerako instalazio eta jardueretako erabiltzaile: hondakin biodegradagarriak Dekretu honetan zehaztutako komunitate-konpostajerako instalazioetan utzen dituzten pertsona fisikoak.

m) Sortzaile handi: hondakin biodegradagarriak kopuru handian ekoizten dituena; jatetxeak, handizkariak, jantokiak, sukaldaritza kolektiboko zerbitzuak, txikizkako kontsumorako establezimenduak eta halako jarduerak izan ohi dira.

4. artikulua– Komunitate-konpostajerako instalazioen kokapena.

1.– Toki-erakundeek sustatzen dituzten komunitate-konpostajerako instalazioak ipiniko diren tokiko udalek ezartzen dituzten arauen arabera kokatuko dira, pertsonei molestiak sortzea saihestearren eta, nolanahi ere, errespetatu egingo dira jabari publikoko guneak eta legez ezarritako zortasunak, baita unean-unean indarrean egon daitezkeen bestelako arauetatik eratorritako beste edozein muga ere.

Toki-erakundeek sustatzen ez dituzten komunitate-konpostajerako instalazioak, ahal dela, hondakin biodegradagarrien sortzaileen instalazioetan kokatu beharko dira, instalazio horiek hartuko dituzten udalek ezarritako arauen arabera, pertsonei eragozpenik ez eragiteko, eta, nolanahi ere, jabari publikoko eremuak eta legez ezarritako zortasunak errespetatz, baita indarrean dauden beste arau batzuetatik eratorritako beste edozein muga ere.

2.– Komunitate-konpostajerako lekuak erabilera eraginkorra ziurtatzeko, instalazioek honako kondizio hauek bete beharko dituzte:

a) berariaz horretarako bideragarritasun-azterketa bat egin ondoren ezarri behar dira, kokaleku horretan instalazioak egokiak direla ziurtatzeko eta behar besteko materia organikoa ekarriko dela bermatzeko.

b) balizko erabiltzaileengandik behar bezain gertu ezarri behar dira.

5. artikulua.– Komunitate-konpostajerako instalazioen kokapena.

1.– Komunitate-konpostajerako instalazioek ez dituzte izango hamar metro kubiko baino gehiago, bolumenaren aldetik, konpostaje-prozesua gauzatzeko. Bolumena neuritzeko, instalazioa osatzen duten ekipamendu guztiak zenbatuko dira, material egituratzalea hartzera eta konposta biltegiratzera zuzendutakoak izan ezik.

2.– Konpostaje-instalazioen bolumena kalkulatzeko, instalazio berekoak direla joko da gune berean kokatutako konpostagailu guztiak, baldin eta elkarren arteko distantzia 20 metrotik gorakoa ez bada eta titular berari badagozkio guztiak.

3.– Instalazioen diseinuak galarazi egin behar du konpostaje-prozesuan azpiloteak nahastea. Halaber, instalazioen diseinuan honako hauek bermatuko dira:

a) edateko uraren eta energia elektrikoaren hornikuntza.

b) material egituratzalearen etengabeko hornikuntza.

c) beheko babes-hesi bat karraskariei pasatzen ez uzteko.

d) biohondakinak konpostatzeko prozesuaren fase guztiak osorik burutzea.

e) instalazioaren erabiltzaileei mugatutako sarbidea, ahal bada, erabiltzaileak identifikatzeko sistemaren bidez.

f) erabiltzaileentzako argibide grafiko argi eta ulergarriak, gutxienez, biohondakin konpostagarriei, baliabidearen argibideei eta instalazioaren ardura duen teknikariaren erreferentziari buruzkoak.

6. artikulua.— Komunitate-konpostajerako instalazioetan onar daitezkeen hondakinak.

1.— Komunitate-konpostajerako instalazio batean onartu ahalko diren biohondakinak dekretu honen I. eranskinean zehazten dira.

2.— Titulartasun publikoko komunitate-konpostajerako eremuetan, toki-erakundeak bereizita bildutako biohondakinak tratatu ahalko dira, baldin eta kopuru hori konpostaje-eremu bakoitzeko 20 t/urte baino gehiagokoa ez bada. Halako kasuetan, 7., 8., 9., 12. eta 15. artikuluetan ezarritako obligazioak ere bete beharko dira.

3.— Biohondakinak poltsetan biltzen direnean, poltsa horiek komunitate-konpostajerako instalazioan konpostatu ahalko dira, betiere EN 13432:2000 Europako araua edo plastikoen konpostagarritasunari buruzko Europako eta estatuko beste estandar batzuk betetzen badituzte.

7. artikulua.— Komunitate-konpostajerako prozesua kontrolatzea.

Komunitate-konpostajerako instalazio eta jardueren titularrek bermatu egin beharko dute arrisku biologikoak efikaziaz arintzen direla prozesua baldintza egokietan mantenduta. Prozesu horretan, 8. artikuluan araututako produktu-kondizioak bermatzeko beharrezko kontrolak egin beharko dira.

8. artikulua.— Komunitate-konpostajerako instalazio eta jardueretatik datorren konpostaren analitikoa kontrolatzea.

1.— Komunitate-konpostajearen prozesua amaitzean, komunitate-konpostajerako instalazio eta jardueraren titularrak bermatu egin beharko du lortutako konpost helduaren lote bakoitza kontrolatu egiten dela, lagin adierazgarri baten bidez, eta dekretu honen II. eranskinean adierazitako mugak betetzen direla bermatuz.

2.— Dekretu honetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten komunitate-konpostajeko jardueretatik ateratako konposta hondakintzat hartuko da, eta Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsauei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean eta hura garatzeko araudian aurreikusitakoaren arabera hartuko da halako konpostari balioa emateko edo, aitzitik, ezabatzeko erabakia.

3.— Mugak betetzen direla zehazteko analisiak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 5eko 2019/1009 (EB) Erregelamenduan aipatzen diren arau harmonizatuen arabera egingo dira. Erregelamendu horrek EBko produktu ongarriak merkatuan eskuragarri jartzeko xedapenak ezartzen eta 2003/2009 Errege Erregelamenduko (EE) 1069/2009 Erregelamenduak eta (EE) 1107/2009 Errege Eranskinaren (EE) Erregelamenduak aldatzen ditu eta (EE) 2003/2003 indargabetzen du. Bestela, Produktu ongarriei buruzko ekainaren 28ko 506/2013 Errege Dekretuaren VI. Eranskinean bildutako metodo analitikoei ere jarraituko zaie.

4.– Konpost helduaren lote bat hainbat azpilotek osatzen badute, horietako bakoitza banaka aztertu beharko da.

9. artikulua.– Komunitate-konpostajerako instalazio eta jardueretako konposta biltegiratzea.

1.– Komunitate-konpostajerako instalazio eta jardueretik ateratako konposta komunitate-konpostajerako instalazioetan biltegiratu ahalko da, heltze-prozesutik lortutako konpostaren ezaugarriak ez direla aldatzen ziurtatutako betiere.

2.– Instalazioaren titularrak komunitate-konpostajerako instalazioetik kanpo biltegiratzea erabakitzen badu, biltegiratze hori instalazioaren titularraren erantzukizunpean egingo da, kontainerizatuta eta/edo ontziratuta eta toki estalian, heltze-prozesutik lortutako konpostaren ezaugarriak aldatzen ez direla eta konposta erabiltzaileak ez direnen artean banatzen ez dela bermatzeko eran.

10. artikulua.– Komunitate-konpostajerako instalazioaren titularraren obligazioak.

Komunitate-konpostajerako instalazioen titular diren toki-erakundeek eta sustatzaile publiko eta pribatuek betebehar hauek izango dituzte:

a) Komunitate-konpostajerako instalazio bakoitzaren jarduera hasi aurreko jakinarazpen bat aurkeztea Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari.

b) Ingurumen-organoari jarduera etetearen berri ematea.

c) Instalazioak dekretu honen 5. artikulan ezarritako eskakizunak betetzen dituela ziurtatzea.

d) Ziurtatu egin beharko du instalazioak teknikari arduradun bat duela, hau da, dekretu honetako 7. eta 8. Artikuluak betetzeko ardura duen teknikari bat.

e) Instalazioari, prozesuari edo produktuari eragiteko arriskua dakinaren gorabeheraren bat jazoz gero, instalazioa hartzen duen udalerri gorabehera horren berri ematea.

f) Ziurtatzea konposta dekretu honetan aurreikusitako erabiltzaileen artean eta erabileretarako soilik banatzen dela, konpostaje-prozesua amaitzen denean eta dekretu honetako 8. artikulan eskatutako kondizioak betetzen direla egiaztatzen denean.

g) Bermatzea hurrengo apartatuan aipatutako artxibo kronologikoak eskatutako informazioa duela eta udalaren esku egongo dela hiru urtean gutxienez.

11. artikulua.– Komunitate-konpostajerako instalazio eta jardueretako teknikari arduradunaren betebeharrak.

1.– Instalazio bakoitzaren arduradun teknikoak kaudimen tekniko nahikoa izan beharko du bermatu ahal izateko prozesua halako baldintzetan gauzatuko dela non, bai komunitate-konpostajerako instalazio eta jarduerek, bai lortutako konpostak ingurumenaren babes eta pertsonen osasuna ziurtatuko duten.

2.– Instalazio bakoitzaren teknikari arduradunak obligazio hauek bete beharko ditu:

a) Kontrolatzea konpostatuko biohondakinen tipologia, dekretu honetako 6. artikulan ezarritakoaren arabera.

b) Kontrolatzea konpostaje-prozesua, dekretu honetako 7. artikuluan ezarritakoaren arabera. Konpostaje-prozesua kondizio egokietan gauzatzen dela eta dekretu honetan ezarritako baldintzak betetzen direla ziurtatzeko, gutxienez ataza hauek egingo dituzte komunitate-konpostajerako eremu edo modulu bakoitzean, segurtasun- eta osasun-kondizio egokietan betiere:

– Astean bi aldiz gutxienez parametro hauen jarraipena egitea: temperatura; hezetasuna; materialaren trinkotze-maila; usainik eza; lixibiaturik eza eta material desegokirik eza.

– Konpostaje-prozesua aldizka mantentzea, honako ataza hauek eginez: iraulketak; ureztatzeak; material egituratzailea ekartzea; moduluen arteko ontzi-aldaaketa, hala badagokio; material desegokiak ateratzea, beharrezkoa izanez gero.

c) Kontrol analitikoa dekretu honen 8. artikuluan xedatutakoaren arabera egiten dela ziurtatzea.

d) Lote guztien trazabilitatea bermatzea.

e) Komunitate-konpostajerako instalazioetan gauzatutako jardueren artxibo kronologiko bat eramatea. Bertan, gutxienez, honako informazio hau jasoko da: temperaturaren eta prozesuaren iraupenari egindako kontrolaren emaitzak; konpostaren kontrol analitikoaren emaitzak; eta gorabeheren eta horietarako soluzioen erregistroa.

12. artikulua.– Udalek komunitate-konpostajearekin lotuta dituzten betebeharra

1.– Udalek, euren lurralte-eremuan komunitate-konpostajerako instalazioak badaude, tratamendu hori behar bezala egiten dela zainduko dute. Horretarako, honako hauek gainbegiratu beharko dituzte:

a) Komunitate-instalazio eta -prozesuak dekretu honetan ezarritako betekizun eta kondizio guztiak betetzen dituztela.

b) Komunitate-konpostajerako eremu guztien arduradun bat egongo da gutxienez; alor horretan prestakuntza egokia izan beharko dute pertsona horiek, eta konpostajerako instalazio guztiak gainbegiratzeaz eta erabiltzaileei informazioa emateaz arduratuko dira.

c) Erkidegoko konpostaje-eremu guztieta ekoitzitako konpostaren kalitatea bat dator, 8. artikuluko eskakizunarekin.

d) Instalazio guztieta konpostaren erabilerak bat datoz, 15. artikuluaren arabera.

e) Erkidegoko konpostaje-instalazioen ondoriozko konposta 9. artikuluan jasotakoaren arabera biltegiratzen dela eskumen-eremu batean.

2.– Era berean, udalek betebehar hauek izango dituzte:

a) Material egituratzailea aurkitzen eta banatzen laguntzea, kantitate eta tipologia egokietan.

b) Dekretu honen 3. eranskinean adierazten den informazioa biltzea eta Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari helaraztea.

c) Erabiltzaileei prestakuntza egokia ematen zaiela eta komunitate-konpostajerako instalazioen funtzionamendu egokirako beharrezkoa den gizarte-aktibazia gauzatzen dela bermatzea, 16. artikuluaren arabera.

13. artikulua.– Komunitate-konpostajerako instalazioak erregistratzea.

1.– Udalek dagokien udal-mugartean dauden titulartasun publiko edo pribatuko komunitate-konpostajerako instalazio eta jardueren erregistro bat mantenduko dute. Aipatutako erregistroan informazio hau jasoko da:

- a) Instalazioaren titularra den pertsona fisiko edo juridikoaren, publikoa izan edo pribatua izan, identitatea.
- b) Teknikari arduradunaren identitatea.
- c) Instalazioetako erabiltzaileen identitatea.
- d) Instalazioen kokapena.
- e) Instalazioen edukiera.

2.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 16. artikulan xedatutakoari jarraikiz, aurreko apartatuan aipatutako erregistroak sexuaren aldaagaia jaso beharko du, datuak bereiz bildu eta ustiatzeko.

3.– Toki-erakundeek neurri egokiak hartuko dituzte instalazioetako titularrek instalazioen erregistroari dagokion informazioa eguneratuta mantentzen dutela bermatzeko.

14. artikulua.– Komunitate-konpostajerako instalazio eta jardueretatik datorren konpostaren erabilera.

1.– Komunitate-konpostajerako instalazioetan sortutako konposta instalazio horien erabiltzaileek erabiliko dute esklusiboki, eta, betiere, erabilera partikularrerako.

Sortutako konpostari komunitate-konpostajerako instalazioen erabiltzaileen erabilera partikularraz bestelako erabilera bat eman nahi bazaio, ongarriei, hondakinei eta giza kontsumorako ez diren animalia-azpiproduktuei buruzko araudiak – Europa, Espainiako Estatu eta EAEkoak– konpostajeari, sortutako konpostari, hondakinei, baimenei eta erregistroei dagokienez ezarritakoa bete beharko da.

2.– Toki-erakundeek, euren titulartasuneko eta euren mugapeko instalazioetan sortutako konpostaren erabiltzaile diren aldetik, instalazio horietan ekoitzitako konposta erabilera partikularrerako ere erabili ahalko dute.

15. artikulua.– Etxe-konpostajea.

1.– Etxe-konpostajeko jarduerak egiten dituzten pertsonek obligazio hauek bete beharko dituzte:

- a) Etxe-konpostajea gauzatu nahi badute edo, aitzitik, jarduera hori bertan behera utzi nahi badute, dagokion udalari ematea asmo horren berri, 4. eranskinaren arabera.
- b) Etxe-konpostajea toki-erakundeek ezarritako etxe-konpostajerako programen esparruan garatzen bada, erakunde horiek etxe-konpostajeko prozesuaren inguruan

antolatu ohi dituzten prestakuntza- eta dinamizazio-jardueretan parte hartu beharko du erabiltzaileak.

c) Dekretu honen 6. artikulan zehaztutako hondakinak baino ez konpostatzea.

d) Etxe-konpostajerako ekipamendua konpostaje-prozesu osoa gauzatzeko behar bezala egokituta daudela ziurtatzea.

e) Etxean, lorategian edo baratze partikularrean lortutako konposta baino ez baliatzea. Lortutako konposta ezin izango da inola ere merkaturatu.

2.- Informazioa biltzeko, Udalak etxe-konpostajearen erabiltzaileen zerrenda eguneratua izan beharko du.

3.- Era berean, etxe-konpostajerako programak ezarrita dituzten lurralde-eremuetako Udalek honako betebehar hauek izango dituzte:

a) erabiltzaileei prestakuntza egokia ematea, etxe-konpostajea gauzatzeko prozesua behar bezala obratzeko gai direla ziurtatzeko. Halaber, etengabeko aholkularitza eta zalantza-ebazpena eskaini beharko die erabiltzaile horiei.

b) beharrezkoa izanez gero, konpostaje-prozesurako material egituratzailea eskura ez duten erabiltzaileei halako materiala emateko prozedura bat gaitzea.

4.- Dekretu honetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten etxe-konpostajeko jardueretatik ateratako konposta hondakintzat hartuko da, eta Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean eta hora garatzeko araudian aurreikusitakoaren arabera hartuko da halako konpostari balioa emateko edo, aitzitik, ezabatzeko erabakia.

16. artikula- Komunitate- eta etxe-konpostajerako instalazio eta jardueren erabiltzaileen prestakuntza eta sentsibilitatea.

1.- Toki-erakundeek, komunitate- eta etxe-konpostajerako instalazio eta jarduerak hartzen baditzte, ardura hartuko dute zaintzeko erabiltzaileek prozesua egokiro eta, edonola ere, dekretu honetan ezarritakoaren arabera egiteko behar den prestakuntza edo gaitasuna izango dutela bermatzeko.

2.- Komunitate-konpostajerako eremuak sustatzen dituzten toki-erakundeek sentsibilizatu egin beharko dituzte herritarra, komunitate-konpostajerako eremuetan biohondakinen behar adinako fluxua maximizatzeko. Horretarako, herritarrentzako prestakuntza- eta dinamizazio-jarduerak egingo dituzte, komunitate-konpostajerako eremuetan parte har dezaten eta horiek erabil ditzaten sustatzeko eta fidelizatzeko; horretarako, urtean gutxienez ekintza bat egingo dute auzo bakoitzeko, eremu bakoitzarekin lotuta.

17. artikula.- Zehapen-araubidea.

Dekretu honetan ezarritako betebeharak ez betetzeak Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean eta Ekonomia Zirkularrerako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean aurreikusitako zehapen-araubidea aplikatzea ekarriko du berekin.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA. Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 63.2 artikula aplikatzea

Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 63.2 artikulua aplikatzeko den kasuetan, proiektuaren ingurumen-eraginak zehazteko prozedurak aukera emango du, soil-soilik, gauzatutako jarduketek eragindako inpaktuaren irismena identifikatzeko, bidezko diren neurri zuzentzaileak hartzearen, hala badagokio.

Ezin izango da proiektua ustiatzen jarraitu edo hasi aldez aurretik ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozeduraren pean jarri gabe, ingurumen-ebaluazioari buruzko araudian horretarako ezarritako betekizunen arabera.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA. Lehendik dauden instalazioak egokitzea.

Dekretu honen indarraldia hasi eta hortik urtebetera gehienez, existitzen diren komunitate-konpostajerako instalazioak eta jarduerak arau honetan aurreikusitakora egokitu beharko dira.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENNGOA. - Dekretua garatzeko araudia gaitza.

Ingurumenaren arloan eskumenak dituen sailari ahalmena ematen zaio dekretu honetan ezarritakoa garatzeko behar diren xedapen eta jarraibide tekniko guztiak eman ditzan.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA. – Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko xxxren xxan.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,

M^a ARANZAZU TAPIA OTAEGI.

I. eranskina

Komunitate-konpostajerako instalazioetan eta etxe-konpostajerako instalazioetan onar
daitezkeen hondakinak

Hondakin onargarriak	Hondakin onargarriak biltzen dituen LER kodea	Adibideak
Konpostajearren erabiltzailearen baratze partikularretik edo hiri-baratzetik sortutako landare-hondakinak.	20 02 01 Hondakin biodegradagarriak	Landare, barazki eta abarren hondakinak.
Sukaldeko papera eta paperezko ahozapi erabiliak, tindurik gabeak.	20 01 01 Papera eta kartoia.	Sukaldeko paper erabilia eta paperezko ahozapiak.
Konpostajearren erabiltzaileak sukalde edo jatetxeetan sortutako elikagaien hondakinak.	20 01 08 Sukaldeetako eta jatetxeetako hondakin biodegradagarriak.	Fruta eta barazki hondakinak, haragia eta/edo arraina, infusio-poltsak eta kafe-hondarrak, arrautza edo fruitu lehorren oskolak, etab.
Konpostajearren erabiltzailearen partikularreko lorategi landare-hondakinak. Udal-parke eta -lorategietako landare-hondakinak.	20 02 01 Hondakin biodegradagarriak.	Hostoak, landareen eta soropila moztetik geratutako hondakinak, sastrakak, kendutako heskaik, loreontziko lore eta landareak, inausitako adarrak, etab.
Merkatuetan, fruta-dendetan edo loradendetan sortutako landare-hondakinak.	20 02 03 Merkatuetako hondakinak.	Fruten, barazkien eta landareen hondakinak.
Etxeko beste hondakin konpostagarri batzuk		Kafe-kapsula konpostagarriak, poltsa konpostagarriak

II. eranskina

Komunitate-konpostajerako instalazio eta jardueren ondoriozko konpostaren mugak.

Parametro agronomikoak	Edukia
Materia organikoa guztira	$\geq \%$ 35
Hezetasuna	$\leq \%$ 40
Corganikoa/Norganikoa	\leq 20
25 mm-ko saretik igarotzen diren partikulak	$\geq \%$ 90
Ezpurutasunak	Edukia
Ezpurutasunak (metalak, beirak eta plastikoak), batzuetan 2 mm baino gehiagoko diametroa dutenak.	$\leq \%$ 0,5
Egonkortasuna	
RotteGrade	Gutxienez III
Higienizazioa	Edukia
<i>Salmonela spp.</i>	Ez dago 25 g konpostetan
<i>Escherichia coli</i> (edo enterococcusak)	\leq 1000 Unitate Kolonia-sortzaile / g konpost
Metal astunak:	Edukia
Kadmioa	\leq 2
Kobreoa	\leq 300
Nikela	\leq 50
Beruna	\leq 120
Zinka	\leq 600
Merkurioa	\leq 1
Kromoa (guztira)	\leq 100
Artseniko inorganikoa	\leq 40

mg / kg
materia
lehor

III. eranskina

Erkidegoko eta etxe-konpostajeko instalazioen titularrek toki erakundeari bidali beharreko informazioa

ETXE-KONPOSTAJEARI BURUZKO INFORMAZIOA	
Etxe-konpostajea hasteko data (ee/hh/uuuu):	
Etxe-konpostajeari uzteko data (ee/hh/uuuu):	
Etxe-konpostajearen titularraren identifikazioa ¹ (NAN):	
Etxe-konpostajea egiten den lekuaren identifikazioa:	<ul style="list-style-type: none"> - Etxebitzaren identifikazioa. Adierazi katastro-erreferentzia: - Baratzearen identifikazioa. Adierazi katastro-erreferentzia:
Etxebitzita mota (adierazi ohiko edo bigarren bizilekua den):	
Etxe-konpostajearen erabiltzaileen kopurua:	

¹ Etxe-konpostajerako prozesuaren arduraduna.

IKASTETXEEN, HIRI-BARATZEEN ETA SORTZAILE HENDIEN KOMUNITATE-KONPOSTAJEA	
Komunitate-konpostajea hasteko data (ee/hh/uuuu):	
Komunitate-konpostajeari uzteko data (ee/hh/uuuu):	
Komunitate-konpostajearen arduraduna (NAN):	
Komunitate-konpostajeko eremuaren kokapena ¹ :	<ul style="list-style-type: none"> - X: - Y: - Eremua:
Jarduera motaren eta komunitate-konpostajea egiten duen erakunde edo enpresaren identifikazioa:	<ul style="list-style-type: none"> - Ikastetxearen izena: - Hiri-baratzean komunitate-konpostajea egiten duen pertsonaren NANa: - Sortzaile handiaren izen-abizenak / izen soziala eta

	IFZ (jatetxea, jangela, etab.):
Komunitate-konpostajeko unitateen kopurua:	
Erabiltzaile kopurua:	

¹ UTM koordenatuak –2 dezimalekin–, Spainian erreferentzia ofizialeko sistema geodesikoa arautzen duen uztailaren 27ko 1071/2007 Errege Dekretuan ezarritako erreferentzia-sistema geodesikoaren arabera.

IV. eranskina

Tokiko erakundeak etxe- eta komunitate-konpostajeari buruz emandako informazioa, Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoari bidali beharrekoa.

ETXE- ETA KOMUNITATE-KONPOSTAJEA		
Toki-erakundea:	Etxe-konpostajea	Komunitate-konpostajea ¹
Informazio-igorpenaren data (uuuu/hh/ee)		
Etxe-konpostajearren unitate aktiboen kopurua (etxebizitzak eta baratzeak barne hartuta)	Etxe-konpostajearren unitateen kopurua ohiko etxebizitzetan: Etxe-konpostajearren unitateen kopurua bigarren etxebizitzetan: Etxe-konpostajearren unitateen kopurua baratzeetan:	-
Erabiltzaile kopurua:		
Komunitate-konpostajerako guneen kopurua.		Toki-erakundeak kudeatutako guneen kopurua: Erakundeek edo enpresek kudeatutako guneen kopurua (ikastetxeak, hiribaratzreak eta sortzaile handiak):
Komunitate-konposterako unitateen kopurua.	-	Toki-erakundeak kudeatutako unitateen kopurua: Erakundeek edo enpresek kudeatutako unitateen kopurua (ikastetxeak, hiribaratzreak eta sortzaile handiak):

¹ Toki-erakundeak kudeatutako komunitate-konpostajea, ikastetxeek kudeatutakoa, hiribaratzreak eta sortzaile handiak barne hartzen ditu

IKASTETXEEN, HIRI-BARATZEEN ETA SORTZAILE HANDIEN KOMUNITATE-KONPOSTAJEA	
Komunitate-konpostajearen hasiera-data (uuuu/hh/ee):	
Komunitate-konpostajearen amaiera-data (uuuu/hh/ee):	
Komunitate-konpostajearen arduradunaren identifikazioa (NANa):	
Komunitate-konpostajerako gunearen kokapena ¹ :	X: Y: Ordu-eremua:
Komunitate-konpostajearen jarduera motaren eta jarduera hori egiten duen erakunde edo enpresaren identifikazioa:	Ikastetxearen izena: Hiri-baratzean komunitate-konpostajea egiten duen pertsonaren NANa: Sortzaile handiaren mota eta izen-abizenak/sozietate-izena eta IFZa (jatetxea, jantokia, etab.):
Komunitate-konposterako unitateen kopurua.	
Erabiltzaile kopurua:	

¹ UTM koordenatuak –2 dezimalekin–, Espainiako erreferentzia ofizialeko sistema geodesikoa arautzen duen uztailaren 27ko 1071/2007 Errege Dekretuan ezarritako erreferentzia-sistema geodesikoaren arabera.

PROYECTO DE DECRETO, por el que se establece el régimen jurídico y las condiciones técnicas de las instalaciones y actividades de compostaje comunitario y doméstico.

Los biorresiduos suponen una fracción muy importante de los residuos domésticos generados en la Comunidad Autónoma del País Vasco, entendiendo por tales los residuos generados en los hogares como consecuencia de las actividades domésticas, así como los similares a los anteriores generados en servicios e industrias.

